

54 egunegun



2014ko apirila



Bardator TAO

Beasaingo udal aldizkaria

# beasaingain



Beasaingo udala

2 Iritzia 3 I. Berditasun Plana 4 Auzoak biziberritzen 5 Elkarrizketa 6-7 TAO 8 Hitzarmenak kultur elkarteekin 9 Ezkiagako prozesua 10-11 Laburrak 12 Kiroldegiko sorkuntza lokalak

# Herritarrak ahalduntzea helburu

**U**dalean sartzerako politika beste modu batera egin zitekeela esan genuen eta, pausoz pauso eta ekimenez ekimen, Beasain egiteko beste modu bat praktikan jartzen dihardugu. Lan egiteko moduan aldaketa sakonak aplikatzea suposatzen duen eredu jarri dugu martxan, bide honek dituen zailtasunak gaindituz eta dituen aukera eta alderdi positibo guztiak lehenetsiz.

Udalaren apostua gauzak herritarrekin batera egitea izan da. Bide honetan aurrerapausoak ematen goaz, eta bidea egiten jarraituko dugu, beasaindarrekin elkarlanean. Ez da bide erraza baina bagoaz parte hartzean oinarritzen den lan egiteko modua iraunkortzen eta herritarrak bide honetan inplikatzeko. Herritarrak ditu oinarrian lan egiteko modu honek eta herritarrak ahalduntzea helburu, guztiok dugulako zer esana eta guztion artean eraikiko dugulako gure herria. Prozesu desberdinak aipatu ditzakegu: tabernetako terrazen ordenantza, aurrekontuak, mugikortasunaren inguruko prozesua, sorkuntza lokalena, Errekarte eremuko

Antes de entrar en el Ayuntamiento, dijimos que se podía hacer política de otra manera: hay otra forma de hacer Beasain. Paso a paso, con cada iniciativa, hemos puesto en marcha una manera de trabajar, superando las dificultades y dando preferencia a las oportunidades y aspectos positivos que ofrece. Nuestra apuesta ha sido hacer las cosas con la

prozesua, gazteen lokalena eta I. Berdintasun Plana diseinatzekoa, besteak beste.

Udalaren hurrengo erronka Ezkiaga auzoan burutuko dugun prozesua da. Lan egiteko modu berri honetan sakontzeko aukera ezin hobea. Beasaindar guztiarentzat onuragarria eta Ezkiagako auzotarrentzat aukera paregabea beraz, eraiki dezagun Beasain Gogo batez.

ciudadanía. Vamos avanzando en esta dirección y lo seguiremos haciendo junto con los y las beasaindarras.

El camino no es fácil, pero poco a poco la implicación de la ciudadanía es mayor. y estamos estabilizando esta forma de trabajar basada en la participación, la cual, se basa en la la ciudadanía y en su empoderamiento. Hemos trabajado con diversos temas como la ordenanza de las terrazas, los presupuestos, el proceso sobre la movilidad, el de los locales de los y las jóvenes, Errekarte y el Plan de Igualdad entre otros.

El próximo reto es el proceso de participación en el barrio Ezkiaga. Será beneficioso para todo el municipio y una oportunidad excepcional para la gente del barrio. Así que, continuemos construyendo Beasain juntos.



zezilia herrador • udaletik

## inkesta Zer moduz doaz Berdintasun Plana zehazteko bilerak?



Begoña Lizarralde

Asko gustatu zait. Oso dinamikoa izan da. Planaren beharra zegoela uste dut. Nire ustez oso garrantzitsua da autonomia: umetatik erakutsi beharko ligukete autonomo izaten, etxeko lanetan, kalean... Hori lortuz gero, berdintasunerako bidean geundekela uste dut.



Ligia Varela

Agradecería un mejor manejo del tiempo, pero me gustó mucho. Asistieron dos hombres e invitaría a que vengan más, porque son muy necesarios para resolver el problema. El problema existe y hay que empezar desde la base. La igualdad la tenemos que trabajar todos.



Maria Jesus Auzmendi

Hemendik zerbat positiboa aterako dela uste dut. Zuzendu zutenek ere zer nahi duten badakitela ikusten da, fundamentu asko dute. Nik gazteei inguratzeko dei egingo nieke; zeresan handia dute. Plan baten beharra zegoen, bai. Lan arloan ikusten dut behar handiena.



# Udala I. Berdintasun Plana osatzen ari da herriko eragile desberdinekin

Beasaingo Udalak ekain bukaera alderako prest eduki nahi du I. Berdintasun Plana. Horretarako herritarrek, herriko elkarteak, udal langileak eta ordezkari politikoak elkarrekin ari dira lanean.

**B**easaingo I. Berdintasun plana egiteko prozesuan murgilduta dago Udala. Ahalik eta iritzi, ekarpen eta proposamen gehien jasotzeko, herriko eragile desberdinekin, udal langileekin, ordezkari politikoekin eta Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin ari da lanean Udala.

Berdintasun Planak hiru helburu ditu: gizon-emakumeen aukera berdintasunaren inguruko diagnostikoa egitea, horren inguruko hausnarketa egitea eta egoeraz jabetzea, eta diagnostikoa egiterakoan lagungarri izango den giroa lortzea eta jarrera aktiboak sustatzea partehartzailerik guztien artean.

Hiru fase ditu planaren lanketak. Urtaurretik apirila bitartean, diagnostikoa egingo dute. Ekainera bitartean, plana diseinatuko dute eta, udako oporren aurretik plana bera aurkeztuko dute. Bilerak edo tailerrak (ikusitakoak) lantzen ari dira.

Martxoko bileran, Elhuyarreko bi teknikariek eta Eli Manterola Berdintasun Teknikariarekin batera, Berdintasun Foroko, Trigoi Triatlói taldeko, Asmubeko, Caritaseko eta Beasain BHIko 18 kide bildu ziren, 15 emakumezko eta 3 gizonzko. Naiara Arri Elhuyarreko teknikariak azaldu duenez, «diagnostikotik bost gairen inguruko lehenengo datu kuantitatibo edo zertzeladak eman ge-



Martxoaren 17ko bilera lantzeko jauregian.

nizkien. Hau da, hezkuntzari dagokionez ikastetxeetako matrikulazioa sexuaren arabera nolako den, ludoteka eta

## Bilerak

Bilerak 18:00etatik 20:00etara izango dira lantzeko jauregian.

» **Apirilak 7, astelehena:** Diagnostikoa lantzea; egoera zein den adosteko.

» **Maiatzak 12, astelehena:** Zer lan ildo jarraitu zehaztu eta amaitu.

gaztekuaren erabilera datuak, elkarrekin zuzendaritzan emakumezkoen presentzia nolako den, kirol instalazioen erabilzaileak sexuaren arabera, eta antzekoak...». Taldeka horien inguruko azterketa eta hausnarketa egin zuten herritarrek. «Euren ekarpen guztiak jaso genituen eta bukaeran guztiak izan zuten gainontzekoek egindako lanaren berri jasotzeko aukera».

Apirilaren 7ko bileran, diagnostikoa onduko nagusiak, eta etorkizuneko erronkak edo «berdintasunaren planaren helburuen oinarri izango direnak lantzen hasiko gara», gaineratu du.

El Ayuntamiento está inmerso en el proceso de elaboración del primer Plan de Igualdad. El objetivo es recabar la mayor cantidad de propuestas y opiniones posibles. Para ello se está contando con los distintos agentes sociales, personas trabajadoras del Ayuntamiento, representantes políticos y con el asesoramiento de Elhuyar.

El Plan de Igualdad tiene tres objetivos: hacer el diagnóstico sobre la igualdad, profundizar en la reflexión al respecto y fomentar actitudes positivas entre las personas participantes.

•• El Ayuntamiento está inmerso en el proceso de elaboración del primer Plan de Igualdad ••

•• El diagnóstico se elaborará el 7 de abril a las 18:00 y el diseño del Plan se hará el 12 de mayo ••

## Reuniones

El diagnóstico se elaborará el 7 de abril a las 18.00 horas en el palacio de lantzea.

El 12 mayo se hará el diseño del Plan y se presentará antes del verano.

En la primera reunión celebrada en marzo participaron 18 personas que representaban a los siguientes organismos: Foro por la Igualdad, Trigoi (grupo de triatlón), Asmube, Cáritas, y Beasain BHI.

# Auzoak biziberritzea helburu

Aurrekontuen parte hartze prozesuan landa eremuko auzoetako herritarrek egindako bi eskari martxan jarri ditu Udalak: autobus zerbitzua eta gaikako hondakin bilketarako guneak.

Beasaingo Udalak landa eremuko auzoak eta herrigunea uztartzeko autobus zerbitzua jarri du martxan, udal aurrekontuen parte hartze prozesuan auzotarrek hala eskatuta. Sei hila beteko proba egiten ari dira. Astean bi egunetan, asteartetan eta ostiraletan, izaten da autobus zerbitzua, tren geltokitik Mandubiaraino. Salbatoren, Arriaranen, Garinen eta Astigarretan egiten ditu geldialdiak. «Erabiltzailerik balego, ambulatioraino ere joaten da. Erabiltzaileen nahierara da. Erabiltzaileek beste lekuren batean geratu nahi badute, geratzen da», dio Mari Mar Celaya zinegotziak. Momentuz, dohainik da zerbitzua. Edozein herritarrentzat ere aukera polita izan daiteke. «Plan polita izan daiteke, 09:05ean geltokian autobusa hartu, Mandubiaraino joan, bertan buelta bat eman eta 13:00etan itzultzea».

Garingo Begoña autobusaren erabiltzailea da eta gustura dago zerbitzu berriarekin. Auzoetan «80 urtetik gorako adineko pertsona asko bizi da. Orain arte moldatu dira autoarekin edo taxiarekin, baina gero eta zailagoa dute. Autobusari esker, errazagoa izango dute herrigunera jaistea».

•• «En los barrios rurales vive mucha gente mayor de 80 años. Para ellos será más fácil bajar al centro, gracias al autobús» ••

El Ayuntamiento ha puesto en marcha dos nuevos servicios, respondiendo a las peticiones de los y las vecinas de los barrios que participaron en el proceso participativo de los presupuestos y en las reuniones realizadas desde el departamento de bienestar. Por una parte, se ha establecido un servicio de autobús que une el centro del municipio con la zona de Mandubia, Astigarreta, Garin, Arriaran y Salbatore. El servicio es gratuito. En seis meses, se evaluarán los resultados del servicio, con el objetivo de mejorarlo.



## AUZOETAKO AUTOBUS ZERBITZUA ASTEARTE eta OSTIRALETAN

BEASAIN viletaia	SALBATORE	ARRIARAN	GARIN	ASTIGARRETA	MANDUBIA
09:05	09:10	09:15	09:20	09:25	09:30
13:30	13:35	13:40	13:45	13:50	13:55

MANDUBIA	ASTIGARRETA	GARIN	ARRIARAN	SALBATORE	BEASAIN viletaia	BEASAIN ambulatoria
09:30	09:30	09:35	09:40	09:45	09:50	09:55
13:00	13:00	13:05	13:10	13:15	13:20	13:25



## Hondakinen bilketa guneak

Landa eremuko auzotarrek ere badute birziklatzeko aukera, Beasaingo Udalak gaikako hondakin bilketarako guneak egokitu baititu. Erauskin auzoan, hilerriko bidegurutzean jarri dute. Loinatz auzoan, Loinazko ermitarako bidegurutzean, Gudugarretan, orain edukiontzia dagoen lekuan, Arriaranen, zubian, Garinen, elizaren atzean, Astigarretan orain edukiontzia dagoen lekuan eta Salbatoren, hotelaren atzean.

Se han instalado zonas de recogida selectiva y reciclaje en todos los barrios rurales del municipio.

Stijn Callens SOS Arrazakeriako kidea

## «Etorkinei informazioa eman eta salaketa arrazistak kudeatuko ditugu»

Zerbitzu berri bat jarriko du martxan apirilean Beasaingo Udalak: Etorkinentzako informazio eta salaketa zerbitzua. Zerbitzu hori SOS arrazakeriak kudeatuko du eta udaletxera etorriko da asteartero Stijn Callens (Belgika, 1958) SOS Arrazakeriako kidea. Udalak pertsonak lehenesten ditu, hauek dira abiapuntua eta zerbitzu berri honekin, herriko aniztasunari erantzun bat eman nahi zaio.

**Zer eskainiko duzue zerbitzu honen bidez?**

Bi helburu nagusi ditu gure zerbitzuak: Salaketak jaso, aztertu eta kudeatzea, eta informazioa eskaintzea.

**Zer nolako informazioa emango duzue?**

Aholkuak eta informazioa emango dugu: baimenak berritzeko laguntza, paper kontuak, erroldatzeak, diru-laguntzak... Administrazioaren aurrean dituzten dudak argitzen ditugu batez ere.

**Eta salaketekin zer egiten duzue?**

Etorkinen aurkako jarrerak salatzen ditugu guk. Askotariko salaketak iristen zaizkigu. Horregatik, lehenik, salaketa entzun, arazoa benetan arrazakeria edo diskriminazioa den ikusi, hala bada justifikatu dezakegun aztertu, eta gero, ebaluat egiten dugu benetan poliziarengana joateak edo epaiketa bat egiteak mezezi duen. Guk abokatu bat dugu eta berak laguntzen digu hortik aurrerakoan.

**Nork egin dezake salaketa?**

Hobe izaten da salaketa biktimak berak egiten badu, baina, edonork egin deza-



Stijn Callens, Zezilia Herrador zinegotzia eta Djeneba Diara, Bategiteko kidea.

ke. Etorri-berriei normalean gehiago kostatzen zaie, beldur dira edo ez dira dituzten eskubideen kontziente.

**Nola jarri daiteke harremanetan zuekin?**

Beasainen astearteetan egongo naiz, baina, mail edo telefono bidez ere egin dezakete. Mailaren helbidea honakoa da: [sosarrazakeria@euskalnet.net](mailto:sosarrazakeria@euskalnet.net).

●● **El Ayuntamiento pone en marcha un nuevo servicio de información y denuncia para personas inmigrantes que gestionará SOS Racismo** ●●

Uno de los principios del Ayuntamiento es que las personas tienen prioridad y por ello es importante atender a la diversidad que existe en nuestro municipio. En este sentido, SOS racismo gestionará el nuevo servicio de información y denuncia que pone en marcha el Ayuntamiento de Beasain para personas inmigrantes. Stijn Callens estará todos los martes de 16:00 a 19:00 en el Ayuntamiento para ofrecer información (sobre todo dudas administrativas) y recibir, analizar y gestionar denuncias racistas. También se pueden poner en contacto con él mediante el mail [sosarrazakeria@euskalnet.net](mailto:sosarrazakeria@euskalnet.net). Las denuncias las puede hacer cualquier persona, pero es preferible que las haga la víctima.

### Etorkinentzako informazio eta salaketa bulegoa

**Noiz:** Astearteetan 16:00etatik 19:00etara.

**Non:** Udaletxeko Berdintasun saileko bulegoan.

**Hitzordua:** Zita eskatu behar da aurrez, honako telefono zenbakietara deituta: 943 24 56 26 edo 943 24 56 27.

### Oficina de información y denuncia para personas inmigrantes

**Cuándo:** Los martes de 16:00 a 19:00.

**Dónde:** En la oficina del departamento de Igualdad del Ayuntamiento.

**Cita previa:** Hay que pedir cita previa llamando a estos números de teléfono: 943 24 56 26 ó 943 24 56 27.



# Maiatzaren 5ean ezarriko da TAO sistema, herri erdigunean

Maiatzaren 5ean ezarriko da TAO sistema Beasaingo tren geltokitik Gipuzkoa plazaraino. Lan asko dago egiteko bitartean. Ahalik eta traba gutxien sortzeko, lanen berri ematen joango da Udala.

**2**004 urtean egin zen trafiko diagnostikoan jada ikusi zen aparkalekuekin arazoa zegoela Beasainen. Orduz geroztik, diagnostiko hartan biltzen ziren arazoei konponbidea ematen aritu dira Udala eta udaltzaingoa. Diagnostiko hartan ateratako ondorioen artean, azken proposamen bat gelditzen da betetzeko: TAOa ezartzea, Beasain erdigunean dagoen aparkaleku arazoa konpontzeko.

Maiatzaren 5ean jarriko da martxan TAO sistema, tren geltoki paretik Gipuzkoa plazara arte. Helburua, erdigunean autoak gutxitzearekin batera, autoen errotazioa lortzea da. Gertek enpresa bizkaitarra arduratuko da TAO sistemaren kudeaketaz.

Esleipen bidez aukeratu den enpresa honek, urteak daramatza beste herri batzuetan TAOaz arduratzen: Tolosan, esaterako.



Hilario Urretabizkaia Udaltzain burua, Koldo Agirre alkatea eta Aitor Larburu zinegotzia.

## Prezio merkeak

TAO sistemaren ezarpenarekin, Udalak ez du etekinik ateratzeko asmorik. Lehen 15 minutuak, gainera, dohainik izango dira, herritarrekin egindako bi-

lerara gerturatu zirenek eskatu zuten bezala. Merkatariek egin zituzten ekarpenen artean, erosleei TAOraiko bonoak ematea ere eskatu zuten.

Lortzen diren sarrerak, TAOak sor-

## Datu interesgarriak

» **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 eta 16:30-20:00. Larunbatetan 09:00-13:00. Larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta jaiegunetan ez da TAO sistema indarrean egongo.

### » PREZIOAK SEKTOREKA:

- **Marroia:** Errotazio azkarreko sektorea: 30 minutu 0,35€, ordu bete gehienez 0,70 €.
- **Urdina:** Erdibidekoa: 30 minutu 0,35€, ordu bete 0,70€, lau ordu arte 5€.
- **Berdea:** Egonaldi luzeak: 30 minutu 0,25€, ordu bete 0,50€, lau ordu arte 2€.

» **Lehen 15 minututan doan.**

» **Isunak:** Isun arinak parkimetroan bertan baliogabetuz gero, 8 €ko isuna ordaindu behar da, lehen 48 orduetan. Lehen 15 egunetan udaletxean ordainduz gero 20 €. Isun larriak 200 €koak dira eta txartela kentzea ekarriko du. Hauek ezin dira parkimetroan ordaindu.

## Datos interesantes

» **Horario:** De lunes a viernes: 09:00-13:00 y 16:30-20:00. Los sábados 09:00-13:00. Los sábados por la tarde, domingos y festivos, no habrá OTA, por lo que no habrá que pagar.

### » PRECIOS POR SECTORES:

- **Marrón:** Sector de rotación rápida: 30 minutos 0,35 €, máximo una hora 0,70€.
- **Azul:** Sector intermedio: 30 minutos 0,35€, una hora 0,70€, hasta cuatro horas 5€.
- **Verde:** Sector de estancias largas: 30 minutos 0,25€, una hora 0,50€, hasta cuatro horas 2€.

» **Los primeros 15 minutos serán gratuitos.**

» **Multas:** Las multas leves se podrán anular en el parquímetro por 8 euros, en las primeras 48 horas, o pagando en el Ayuntamiento 20 euros en los primeros 15 días. Las multas graves serán de 200 euros y se retirará la tarjeta. Esas multas no se podrán pagar en el parquímetro.

tzen dituen gastuak ordaintzeko erabiliko dira. Horren barruan sartuko dira, TAOa kontrolatzeko kontratatuko diren bi langileak. Langileak kontratatzeaz gain, lan asko dago egiteko maiatzaren 5a bitartean: 12 parkimetro jarri, kaleak margotu...

Udalak, aurrez abisatuko du noiz egingo diren lanak, herritarrei ahalik eta traba gutxien sortzeko.

### Matrikula erreferentzia

Erabiltzaileek txanponak eta ibilgailuen matrikulak sartu beharko dituzte parkimetroan. Makinatik ateratzen duten txartela ibilgailuan jartzea ez da beharrezkoa izango. TAOko langileek matrikulari begiratu eta ibilgailu hori hor noiz arte egon daitekeen jakingo dute, duten sistemari esker.

Aldaketen aurrean urduri egotea normalea bada ere, Udaletik lasaitasunerako deia egiten zaie herritarrei. Behin TAOa martxan jarrita, jarraipena egingo zaio eta zerbaitek ez badu ondo funtzionatzen, egin beharreko aldaketak egiteko prest dago Udalak.

●● La OTA se implantará el 5 de mayo desde la estación de tren hasta la plaza Gipuzkoa. ●●

●● A la par que se disminuye el número de coches, se pretende conseguir la rotación de vehículos. ●●

A raíz de un diagnóstico que se realizó en 2004, se detectaron diversas necesidades en Beasain. En estos años se ha dado respuesta a esas necesidades, y sólo falta implantar la OTA, para resolver el problema de aparcamiento que hay en el centro del municipio. El objetivo es claro: a la par que se disminuye el número de coches, se pretende conseguir la rotación de vehículos. La empresa

Gertek se encargará de gestionar la OTA, y se pondrá en marcha el 5 de mayo. El precio será barato. El Ayuntamiento no tiene intención de recaudar dinero con el sistema; los beneficios que se obtengan, se destinarán a cubrir los gastos que traerá este sistema. Entre los gastos, estarán las contrataciones de dos personas que controlarán la OTA. Además, siguiendo las peticiones de la ciudadanía, los primeros 15 minutos serán gratuitos en todos los sectores. Los usuarios no tendrán que volver al vehículo para colocar el tique. Las personas que controlarán la OTA, funcionarán con la matrícula del vehículo.

Su dispositivo les informará hasta cuándo pueden estar los vehículos aparcados. Hasta el 5 de mayo se realizarán diversos trabajos, tales como colocar los 12 parquímetros, pintar el suelo... El Ayuntamiento informará de los trabajos que se realizarán, con la intención de causar la menor molestia posible a la ciudadanía. Si una vez implantada la OTA surgen problemas, se analizarán y se realizarán los cambios pertinentes.

## Egoiliar txartela

### Prezioak - precios

» **Prezioa:** Urteko txartela 40€ kostako da. Baina aurten zerbitzua maiatzean hasiko denez, 25 € ordaindu beharko dira.

» **Precio:** La tarjeta anual costará 40€. Pero como éste año el servicio entrará en vigor en mayo, se deberá pagar 25 €.

### Baldintzak - requisitos

1. Estar empadronado en alguna de las calles que se mencionan en el calendario.
2. La dirección del vehículo tiene que coincidir con la dirección del padrón.
3. Adjuntar junto con la solicitud, fotocopia del permiso de circulación del vehículo.
4. Adjuntar junto con la solicitud, fotocopia del recibo de pago.
5. El permiso de circulación del vehículo a nombre de la empresa: Aportar documento acreditativo por parte de la empresa, que justifique que el vehículo se encuentra adscrito al uso personal del solicitante.
6. Vehículo (leasing o renting): Aportar copia del recibo de seguro, teniendo que figurar como conductor habitual.
7. No tener deudas con el Ayuntamiento de Beasain.

## Tarjeta de residentes

### Egutegia - calendario

Eskaera orriak udaltzaingoaren bulegoan aurkeztu behar dira, kaleen araberrako egutegia jarraituz, 14:30etik 20:30era, astelehenetik ostiralera.

#### Martxoaren 31tik apirilaren 4ra - Del 31 de marzo al 4 de abril

Kale Nagusia, J.M.Iturriotz kalea 1-15 / 2-16, Bideluze plaza, Jose Martin Arana kalea, Zaldizurreta kalea 1-19.

#### Apirilaren 7tik 11ra - Del 7 al 11 de abril

Esteban Lasa kalea, Martina Maiz kalea, Igartetxe kalea Bista Alai kalea 10-16 / 9-19, Andre Mari kalea 1-13, Erauskin kalea 2-4-7, San Inazio kalea

#### Apirilaren 14tik 16ra - Del 14 al 16 de abril

Urbalde plaza, Oriamendi kalea 4-30 / 3-29, Nekolalde kalea 2-24 / 7-27.

#### Apirilaren 22tik 25era - Del 22 al 25 de abril

Nafarroa etorbidea 1-25, Barrendain plaza eta Garmendia Otaola kalea 1-2-3.

#### Apirilaren 28tik 30era - Del 28 al 30 de abril:

Egin gabe geratu direnak - Pendientes

# Herriko kultur elkarteekin lanean

Beasaingo 22 kultur elkarterekin hitzarmenak sinatu ditu Udaleko Kultura eta Euskara sailak, elkarlanean, kultura eta euskara bultzatzeko helburuarekin. Aurten %5eko igoera aplikatu zaie.

**B**easaingo Udalaren helburuetako bat kulturgintza bultzatzea da, herriko kultur talde desberdinekin elkarlanean arituz. Gurutze Sukia kultur teknikariak dioenez, «hitzarmenen bidezko kulturgintza modu horrekin, herriko kultur taldeen jardueraz baliatzen da Udala, eta elkarlan horren ondorioz, elkarteak eta taldeak diruz laguntzen ditu». Horretarako, Kultura eta Euskara Sailak hitzarmenak sinatu ditu aurten ere herriko 22 kultur elkarterekin eta talderekin.

Sukiaren esanetan, elkarlana gero eta aberatsagoa da Beasainen, «gero eta elkarte gehiago ari baitira indarrak eta disziplina desberdinak batuz, kultur proiektu berriak sortzen». Elkarteen arteko elkarlana eta komunikazioa ere bultzatu eta dinamizatu nahi ditu Udalak. Horrekin batera, programatzen diren kultur jardueretan euskararen erabilerari indartzea ere bilatzen da.

## Laguntzetan %5eko igoera

Guztira, 2014an, 131.332,38€ bideratu ditu Beasaingo Udalak kulturgintzako hitzarmenatarako. Aurten gainera, irizpide orokorretako bat izan da, diru laguntzetan, %5eko igoera aplikatzea.

El departamento de Cultura y Euskara del Ayuntamiento ha firmado convenios con 22 asociaciones y grupos culturales del municipio, para sumar fuerzas en el impulso de la cultura y el euskara. El Ayuntamiento ha destinado



131.332,38 € a los citados convenios durante el 2014. Se ha aplicado una subida de un 5%.

Así mismo el objetivo es fomentar la cooperación entre las asociaciones y el Ayuntamiento. Uno de los requisitos es-



## Buruhandi eta erraldoi konpartsa sortzen

Udalaren eta elkarteen arteko elkarlanaren emaitza da Beasaingo Erraldoi eta buruhandien konpartsa adibidea. Beasaingo hainbat gaztek, Udalaren laguntzarekin, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa eratu nahi dute.

Talde honen helburua urtean zehar hainbat irteera eta jardura antolatzea da. Bestalde, erraldoien dantzak ikasteko ikastaroa ere antolatuta dute apirilaren 15 eta 22rako. Ikastaroa 17:00etan izango da Arana kaleko Bonberian. Ondorengo helbide elektronikoan eman daiteke izena: [beasaingoerraldoiak@hotmail.es](mailto:beasaingoerraldoiak@hotmail.es).

tablecidos por el Ayuntamiento a las asociaciones para poder acceder a las subvenciones, es la organización de un acto en el conjunto monumental de Igarza y fomentar el uso del euskara en las actividades culturales.

## 2014ko hitzarmenak

- » AEK.
- » Aizkorri Mendizale Elkarte.
- » Argizpi.
- » Arrano Kultur Elkarte.
- » Aurtzaka.
- » Batzokia Kultur Elkarte.

- » Bear pintura zaletuen elkarte.
- » Beasaingo joaldunak.
- » Beti Bizi.
- » Buztina zeramika elkarte.
- » Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
- » Gala Ballet eskola.
- » Goieniz.
- » Gure esku dago.

- » Irriargi.
- » Kantujira.
- » Lemniskata.
- » Loinatz abesbatza.
- » Ostadar dantza taldea.
- » Porteria auzo elkarte.
- » Txilibutxof atsedendiko taldea.
- » Goizeresi txistulari elkarte.



# Ezkiaga auzoan 120.000 euro zertan gastatu erabakiko dute auzotarrek

Beasaingo Udalak esperientzia pilotua jarriko du martxan apirilean, Ezkiaga auzoan: bertako auzotarrek beraien auzoan 120.000 euro zertan gastatu eta erabili nahi duten erabakiko dute.

Udalaren kudeaketan herritarrek ere parte har dezaten ahalegin-tzen ari da Beasaingo Udala eta urrats bat gehiago egitera doa bide horretan. Esperientzia pilotua izango dute Ezkiaga auzoan. Auzotarrek beraien erabakiko dute beraien auzoan 120.000 euro zertan gastatuko duten. Apirilaren lehenengo astean, Zazpiterrietatik Mariarats bitarteko etxeetan gutuna jasoko dute. Prozesuaren berri ematearekin batera, auzoak zer behar dituen zerrendatzeko aukera emango die gutunak auzotarrei. Apirilaren 16ra bitartean, auzotarren proposamenak jasoko ditu Udalak, auzoko leku esanguratsuetan jarriko dituzten postontzien bidez edo [www.beasain.org](http://www.beasain.org) webgunean jarriko den proposamenen orria bete eta [ezkiaga@beasain.net](mailto:ezkiaga@beasain.net) posta elektronikora bidalita.



Ezkiaga auzoa.

## Bilera auzotarrekin

Apirilaren 17tik 28ra bitartean, jasotako iritzi eta proposamen guztien azterketa teknikoa egingo da, egingarriak diren proposamenen zerrenda osatuz. Jasotzen diren proposamen guztien berri emateko, apirilaren 29an, bilera egingo du Udalak auzotarrekin, 19:00etan, Murumendi eskolan. Bilera horretan, 2.

•• Los y las vecinas de Ezkiaga decidirán qué hacer en el barrio con 120.000 euros ••

fase batera pasako diren proposamenak adostuko dira.

Maiatzaren 11ra bitartean, 2. faseko proposamenen artean bozkatzeko aukera izango dute auzotarrek. Maiatzaren 13an, azkenik, bozketaren berri emateko eta erabakia berresteko bilera egingo da, Murumendi eskolan, 19:00etan.

Uno de los grandes objetivos del equipo de gobierno es fomentar la participación ciudadana en la gestión municipal. La experiencia del barrio Ezkiaga será un paso más en esa dirección. En esta ocasión, los y las vecinas del barrio decidirán cómo y en qué gastar 120.000€ puestos a disposición del barrio.

En primer lugar, se darán a conocer los pormenores del proceso mediante una carta remitida a todas las casas del barrio, desde Zazpiterrieta hasta Mariarats. Al mismo tiempo, los y las vecinas del barrio tendrán la opción de realizar sus propuestas.

## Proceso de Ezkiaga

- » **Hasta el 16 de abril:** realización de propuestas mediante los buzones instalados en diferentes puntos del barrio o enviando la hoja de propuestas que se podrá descargar en [www.beasain.org](http://www.beasain.org) a [ezkiaga@beasain.net](mailto:ezkiaga@beasain.net).
- » **Entre el 17 y el 28 de abril:** se hará la evaluación técnica de todas las propuestas recibidas, elaborando una lista con las propuestas viables.
- » **29 de abril:** Reunión con el barrio, a las 19:00, en la escuela Murumendi. Se presentarán todas las propuestas recibidas y el análisis realizado.
- » **Hasta el 11 de mayo:** Plazo para votar sobre los proyectos que hayan pasado a la segunda fase.
- » **13 de mayo:** Reunión con el barrio, a las 19:00, en la escuela Murumendi. Se dará a conocer el resultado de las votaciones y se cerrará el proceso, validando la decisión.

## Egutegi fiskala

Azokari dagokion zergaren 2. hiruhilekoa, apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean ordaindu beharko da. Bestetik, zabor bilketaren zergaren kobraketa atzeratu egin du Udalak. Urriaren 1etik abenduaren 1era ordaindu beharko da.

La tasa del segundo trimestre del mercadería, se pagará entre el 1 de abril y el 31 de agosto. El Impuesto de Recogida de Basuras, se cobrará entre el 1 de octubre y el 1 de diciembre.

## Loinatz jaietako kartel lehiaketa

Apirilaren 7ra bitartean aurkez daitezke Loinatz jaietarako kartel lehiaketarako lanak. Oinarriak [www.beasain.org](http://www.beasain.org), Udalaren webgunean daude ikusgai. Epaimahaiak A taldeko 5 lan aukeratuko ditu eta udaletxean eta *beasain.org* webgunean jarriko den estekan egongo dira ikusgai. Herritarrek izango dute bost lanetatik gustukoena bozkatzeko aukera, apirilaren 10etik maiatzaren 4ra arte.

El Ayuntamiento ha puesto en marcha el concurso para la elección del cartel de Loinatz Jaiak de 2014. Las bases están publicadas en [www.beasain.org](http://www.beasain.org), la página web del Ayuntamiento. El jurado elegirá a 5 finalistas entre las obras del grupo A, las cuales estarán expuestas en el Ayuntamiento y en la página web *beasain.org*. Los y las beasaindarras podrán votar entre el 10 de abril y el 4 de mayo.

## Udal Euskaltegiko lan poltsa

Beasaingo Udal Euskaltegian sor daitezkeen euskara irakasle beharrak betetzeko lan-poltsa osatzeko prozesua jarri du martxan Udalak. Lehiaketaren oinarriak [www.beasain.org](http://www.beasain.org) webgunean daude argitaratuta. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 3an bukatuko da.

## Gero eta beasaindar gehiagok hitz egiten du euskaraz kalean: % 35,8

**B**easaingo euskararen erabilerean hirugarren neurketa egin du Soziolinguistika Klusterrak. Bilakaera positiboa adierazten dute datuek. Horrekin batera, lehenengo aldiz, haurrek eta gazteek ikastetxeetako jolasgaraietan zenbat euskara erabiltzen duten ere neurtu du.

Según la última medición, el 35,8% de los y las beasaindarras utiliza el euskara en la calle (el 55,8 % conocen el euskara). El uso del euskara ha aumentado en 10 puntos en los últimos 10 años. Se quiere remarcar la evolución positiva del uso del euskara. Sobre todo son los más jóvenes los que hablan en euskara. Por primera vez, se ha realizado la medición



Datuen aurkezpena.

en los centros de enseñanza a la hora del recreo. El más euskaldun es el 2º ciclo de Educación Infantil (80%), seguido por el 1º ciclo de ESO (79%).

### Kaleko neurketa

2003an kaleko euskararen erabilera .....	%25,7
2013an kaleko euskararen erabilera .....	%35,8
Euskaldun hiztunak .....	%55,8
Gunerik euskaldunena .....	Zabalgunea (Foru kalea, Zapatarri, Nafarroa etorbidea, J.M. Barandiaran...).
Gunerik erdaldunena .....	Ezkiaga

### Ikastetxeetako jolasgaraiako neurketa

HHko 2.zikloa .....	%80
DBHko 1.zikloa .....	%79
Batxilergoa.....	% 54

## Zinegaz programa: nerabeentzat eta gazteentzat zine emanaldi berezia

**A**pirilaren 4an, ostiralean, 19:00etan, nerabeentzat (12 urtetik gorakoentzat) eta gazteentzat zine emanaldi berezia izango da Usurbe Antzokian, Eizu gaztelekuak eta Usurbe Antzokiaren kudeatzaile den Goikus-ek elkarlanean antolatuta. *La bella y la bestia* filma ikusteko aukera izango dute. «Eizu gaztelekuko nerabeak zine programaziorako erabiltzen duten filmafinity webgunearen bidez eskura dauden filma estreinaldien berri izan dute eta zein filma ikusi nahi duten aukeratu dute». Sarrera 3 euro kostako da (Gaztelekutik joaten direnak doan izango dute sarrera). Gi-

roa alaitzeko eta nerabeak inplikatzeko, arratsalde horretan Eizu gaztelekuan palomitak prestatuko dituzte antzokian banatzeko.

El 4 de abril, a las 19:00, habrá sesión especial de cine en Usurbe Antzokia, para adolescentes y jóvenes, organizado por Eizu gaztelekua y Goikus, la empresa que gestiona Usurbe Antzokia. Para la primera sesión han elegido la película *La bella y la bestia*. La entrada costará 3 euros (para los y las usuarias del Gazteleku será gratuita). Antes de la película, en el Gazteleku prepararán palomitas para repartir en el cine.

## Gazteen lokalei buruzko prozesu parte hartzailea martxan da

**B** easainen ere, gazte lokalak ugartzen ari dira. Gazteen ikasketa prozesurako oso baliagarriak dira lokal horiek. «Lokal horietan gazteek gauza asko ikasten dituzte: txokoa kudeatzen, kideen arteko adostasunak lantzen, ardurak banatzen, desadostasunak daudenean kudeatzen...» dio gazteria teknikariak.

Baina, tarteka, arazoak sortzen dira gazteen eta bizilagunen artean, eta «gazte eta bizilagunen arteko bizikidetzaren orekatu eta osasuntsu bat bilatzeko asmoz, gazte lokalen gaian sakondu beharrean gaude», dio Aitor Larburu zinegotziak.

Prozesuaren helburua txokoen errealitateari buruzko hausnarketa egin eta etorkizuna denen artean elkarrekin ma-

### 1. faseko bilerak

» **Martxoak 26 eta 27:** gazteekin eta bizilagunekin egin dituzte bilerak.  
» **Apirilak 2, asteazkena:** lokaletako jabeekin, 18:30ean, gaztelekuan.  
» **Apirilak 9, asteazkena:** adin txikikoen gurasoekin, 18:30ean, gaztelekuan.

### 2. faseko bilerak

Adostasunak bilatzea izango da 2. fasearen helburua. Eragile desberdinekin bi bilera egingo dituzte:  
» **Apirilak 29, asteartea:** , 18:30ean, Igartzako jauregian.  
» **Maiatzak 13, asteartea:** 18:30ean, Igartzako jauregian.

raztea da, lokalen gutxieneko segurtasun neurriak bermatuz. Inplikaturako agente guztiak lan egingo du Udalak, bakoitzak baduelako zer esana prozesu honetan.

El Ayuntamiento ha iniciado un proceso de participación sobre los locales que utilizan los y las jóvenes del municipio. El objetivo es reflexionar sobre la realidad y diseñar el futuro juntos, garantizando unas condiciones mínimas de seguridad.

Para ello, se realizarán reuniones con los y las usuarios de los locales, vecinos y vecinas, dueños de los locales y con los padres y madres de los jóvenes menores de edad.

## Beasaingo gazte laguntzaileentzat bekak

**G**azte laguntzaileentzako bekak bi helburu ditu: Beasaingo gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapenerako lankidetzaren ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartzaren baloreak sustatzea. Gazteak gutxienez hilabete egin beharko du garapenerako lankidetzaren ekintzetan. Beasaingo Udalak gehienera 3.000 euroko diru laguntza onartuko dio gazteari, Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jartzeko egin behar dituen bidaiaren joan-etorria, herrialde hartara joateko behar den bisatua, gaixotasun eta istripuetarako aseguru, ostatu gastuak eta mantenuarenak ordaintzeko.

### 18 urte beteta

Programa horretan parte hartzeko gazteek eskaera egin aurretik, gutxienez ere, 18 urte beteak izan behar dituzte eta gutxienez ere urte bete lehenagotik Beasainen erroldatuta egon behar dute. GKEekin ezingo du lan harremanik izan. Eskaerak apirilak 30 baino lehen aurkeztu behar dira Udaletxeko Harrera bulegoan.

Naia Duarte beasaindarra 2012an eta 2013an Hondurasen izan zen Beasaingo Udalaren laguntzarekin. Hurre-



Naia Duarte, Hondurasko haurrekin.

kin eta gurasoekin aritu zen lanean, Zarauzko Acoes GKE erakundearekin. Batez ere, hezkuntza, prebentzio eta osasun arloko proiektuak garatzen ditu Acoesek. Hasieran «gogorra» egin bazitzaion ere, esperientzia aberatsa bizi izan zuen Duartek. Beraz, «gazteak animatu nahiko nituzke, merezi du eta».

Hori bai, joan aurretik formazio egozia jasotzea gomendatzen du. Adibidez, «nahiz eta hizkuntza bera izan, hitz batzuk esan nahi desberdina daukate eta». Oraindik ere, Acoes elkartearekin lanean jarraitzen du.



## Igartza saria eta irakurketa tailerra

Igartza literatur bekaren XV. edizioko irabazle izan zen Danele Sarriugarte elgoibartarraren liburua kalean da dagoeneko: *Erraiak*. Emakume baten barru-barrura bidaia egiten du nobelan. Kontaketa horretan, pertsonaia-aren sentipenak «ironiaz» eta «inongo lotsarik gabe, gordin», azaltzen ditu idazleak. Barne bakarrizketa bat da, «harremanen inguruko hausnarketa bat gaur egungo Euskal Herrian».

Maiatzeko irakurketa tailerlean Sarriugarteren liburu berria landuko dute. Irakurketa tailerrera liburu irakurrita joatea da baldintza. Horretarako, apirilean, Udal Bibliotekan, liburu dohainik eskuratzeko aukera izango dute beasaindarrek.



# Kiroldegiko sorkuntza lokalen sormena

Urtebete da kiroldegiko sorkuntza erabilera arautzeko parte hartze prozesua egin zutela. Instalakuntzak egokitu ondoren, lanean ari dira herriko hainbat kultur eta kirol elkarte, eta erabileraren balorazio ona egiten dute. Sormenaren lekuko dira kiroldegiko sorkuntza lokalak.

## Igor Alustiza • Nikkin

Nikkin taldekoa da Igor Alustiza.

**Zein balorazio egiten duzu?**

Ona esango nuke nik, talde asko aurkeztu dira lokaletara eta bakoitzak bere gogoak martxan jarri ditu. Oso positiboa iruditzen zait gazte bati bere sorkuntza gogorako baliabideetan Udalak laguntza ematea.

**Zer hobetuko, aldatuko zenuke?**

Bete behar diren arauetan, urtean edo bi urtean behin lokal erabiltzailearen proiektuaren balorazio bat egin behar omen da, lokala kentzearen arriskuarekin. Hor 18 urteko partaideak dituen taldeei ezin zaie emaitzak segituan eskatu, lasaiago utzi behar zaie. *Resultadistagiak* ere ezin gara izan, hau ez da produkzio fabrika bat.

**Taldeen arteko harremana nolakoa da?**

Harreman gutxi dugula esango nuke, hala ere normala da, ordutegi ezberdinak ditugunez gutxitan gurutzatzen gara lokaletan. Bileratan bai ikusten dira beste taldeen kezka eta egingo litzuketekentzako.



## Ander Mendiluze • Wild Hearts

Wild Hearts musika taldeko kidea da Ander Mendiluze.

**Lehenengo urtearen zein balorazio egiten duzue, bai prozesuarena eta bai ondorioena?**

Balorazioa gure ikuspuntutik oso ona da, zeren laguntza handi bat izan da taldeentzako, arazorik gabe entsaiatzeko aukera izatea.

**Zer hobetuko edo aldatuko zenukete?**

Lan handia egin dute lokaletan, eta gure iritziz beharrezkoak ditugun gauza guztiak ditugu, horregatik ez genuan ezer berezirik aldatuko.

**Taldeen arteko harremana nolakoa da?**

Oso ona, talde batzuekiko gertutasuna handiagoa da besteekin baino. Azken finean hori normala da, musika moten arabera gehiago elkartzen gara.



## Garbiñe Irizar • Jazpana

Garbiñe Irizar, Jazpanako kidea.

**Lehenengo urtearen zein balorazio egiten duzue, bai prozesuarena eta bai ondorioena?**

Balorazio positiboa. Gustura gaude horrelako leku bat dugulako. Geroz eta jende gehiago ari da eskatzen.

**Zer hobetuko edo aldatuko zenukete?**

Hasieran arazoak izan genituen txartelekin eta argindarraekin. Baina, hasieran. Sistemaren arazoak ziren. Gero konpondu zituzten arazoak eta orain ondo gaude.

**Taldeen arteko harremana nolakoa da?**

Egia esan, ondo egongo litzateke denok gehiago elkartzea, denon artean proiektu berriak sortzeko. Baina, errealtatean, bakoitzak badu nahiko lan berearekin eta ez dugu erlazio gehiegirik. Hala ere, bi ordezkari daude eta denon gaiak daudenean bilerak egiten ditugu. Ardura eurek daramate, eta oso ondo daramate, nire ustez.



## Mikel De las Heras • BKL

Mikel De las Heras BKL taldeko ordezkaria da.

**Lehenengo urtearen zein balorazio egiten duzue, bai prozesuarena eta bai ondorioena?**

Guk hasieratik balorazioa ona egin dugu. Oraingo lokalak eta instalakuntzak askoz ere hobek dira gure ustez.

**Zer hobetuko edo aldatuko zenukete?**

Nik uste dut dena ondo dagoela. Beti dago zerbait hobetzeko baina denborakin egingo da. Gainera uste dut lokalak oso ondo daudela, wifi eta guzti. Eta hori dena, udal-txekoei esker.

**Taldeen arteko harremana nolakoa da?**

Guk egia esan ez daukagu harreman gehiegirik beste taldeekin baina orain arte izan dugun harremana ona dela iruditzen zait.

